



SARRERA

Lehen Hezkuntzako garaian oinarrizkoa da garapen kognitibo eta sozio-afektiboa errespetatzea, egoera berrien antolaketa ahalik eta modu naturalean mantenduz, haur bakoitza kontuan izatea beharrezkoa delako. Lehen Hezkuntzako ikasleek egoera berrien aurreikuspena behar dute, ziur sentitzeko eta norberaren autonomia eta oreka lortzeko.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek sakontze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira.

Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; haurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.



KLIMA LARRIALDIA ETA ELIKADURA

Klima larrialdiaren eragileetako bat gure gizartearen kontsumo ohiturak dira, jaten duguna zuzenean eragiten du kliman. Kutxa Ekogunera bisita aurretik, ikasleei beren elikagai kontsumoaren azterketa bat egitera gonbidatuko zaie.

JARDUERA MOTA

Esperimentazio jarduera.

LEKUA

Beren egunerokoa.

EDUKIA

Gure gizarteko elikagai kontsumoak eragin zuzena du larrialdi klimatikoan, elikagai ekoizpenak duen ingurumen inpaktuagatik.

Inpaktua ez da berdina ordea, zekaleak ekoiztean edo haragia ekoiztean. Beraz gure dieta eta larrialdi klimatikoaren arteko lotura oso estua da.

Hemen Greenpeace-ren "[Haragia](#)" artikulua.



Errezetak (EAThink)

[EAThink "bertokoa jan, mundua buruan"](#), Lehen eta Bigarren Hezkuntzara bideraturik dagoen Euskal Fondoaren proiektua da eta ikasleen jarrera aktibo eta kritikoa bultzatu nahi du gaur egun dugun kontsumo ohiturez.

Ostean, EATHINK programan burutu zen ariketa bat proposatzen dugu ikasleekin egiteko, bertan, haragi ekoizpena beste elikagaien ekoizpenarekin alderatzen da modu oso bisual batean.

Esteka [honetan](#) material guztia.

Beste material gehigarriak orrialde [honetan](#).

